

TREBAKUNTZA 2018-10: SINGULARRA ETA PLURALA

Udal idazki askotan, euskara jatorrean singularrean esaten ditugun gauzak pluralean idatzita ikusten ditugu. Hona hemen hobetu daitezkeen esaldiak:

OHIKO AKATSAK

1. ***Banitu**en irabazteko **esperantzak**.
2. *Adin batetik aurrera, min hartzeko **arriskuak** areagotu egiten **dira**.
3. *Sintomak: arnasa hartzeko **zailtasunak**, **minak**...
4. ***Banitu**en zu ikusteko **gogoak**.
5. *Gauzak **beren luzeren arabera** ordenatuko ditugu.
6. *Haurrak **beren adinen arabera** taldekatzen dira.

ZUZENKETAK ETA AZALPENA

Izen abstraktu batzuekin, gaztelaniak plurala ohi duen hainbat kasutan euskarak singularra du berezko:

1. **Banuen** irabazteko **esperantza**.
2. Adin batetik aurrera, min hartzeko **arriskua** areagotu **egiten da**.
3. Sintomak: arnasa hartzeko **zailtasuna**, **mina**...

Esapide batzuetan, zuzena ere ez da plurala:

4. **Banuen** zu ikusteko **gogoa**.

Arabera daramaten perpaus hauei singularra dagokie:

5. Gauzak **luzeraren arabera** ordenatuko ditugu.

6. Haurrak **adinaren arabera** taldekatzen dira.

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin.

Telefonoz: 946 279 195 (Iratxe)

Posta elektronikoz: iratxe.udalak@uema.eus (Iratxe)

Hurrengora arte!

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Aialde 2
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99